ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Immigrazioari Begirada

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea
Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco
Enpleguaren eta Gizarte Politikako Saila · Departamento de Empleo y Políticas Sociales

2017ko otsaila
Depósito legal BI-2224-04

IMMIGRAZIOAREN Euskal Behatokia ● Observatorio Vasco de INMIGRACIÓN

64 zbk.

2016ko BAROMETROA

Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak

Begirada honetan 2016ko Barometroko datuak jaso ditugu, euskal biztanleek atzerriko immigrazioarekiko adierazten dituen pertzepzio eta jarrerei buruzkoak, hain zuzen. Laburbilduz, 2016ko Barometroak berretsi egiten du 2015eko Barometroan jada antzematen hasitako joera, eta immigrazioaren fenomenoa aztergai hartuta analizatutako dimentsio gehienetan hobekuntza islatzen du. Horixe erakusten dute datuek eta tolerantzia-indizeak berak; izan ere, orain arte eginiko segida historiko osoko (2007-2016) puntuazio altuena islatzen du 2016ko indizeak. 2014an jada hasi zen antzematen hobekuntza hori. Beraz, datuen argitan, badirudi immigrazioarekiko jarrerak krisi ondoko egoera bati loturikoak direla, eta ekonomia nahiz lan arloko zenbait aldagaitan izan diren hobekuntzak direla medio, immigrazioa modu positiboagoan hartzen dela.

1. Arazoaren pertzepzioa

IMMIGRAZIOA ARAZOTZAT HARTZEA

ARAZO PERTSONALA	ARAZOA EAEn Bat-bateko erantzuna	ARAZOA EAEn Erantzun iradokia
%1,5	%2,2	%4,0
Aipamenak guztira %8,5	Aipamenak guztira %12,3	Aipamenak guztira %14,2

Zure ustez, zein dira gaur egun Euskadik dituen hiru arazo nagusiak?



- Euskal gizarteak ez du immigrazioa arazo nagusien artean aipatzen; bat-bateko erantzunetan, biztanleen %2,2k baino ez du adierazi immigrazioa dela Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lehen arazoa. Guztira, %12,3k aipatu dute immigrazioa arazotzat.

- 2015eko datuekin alderatuta, immigrazioa arazotzat hautematen dutenen ehunekoa antzekoa da: %12,4koa 2015ean, eta %12,3koa, 2016an. Euskal biztanle gehienen iritziz, langabezia da EAEko arazo nagusia, eta, neurri txikiagoan, beste zenbat arazo ekonomiko, hala nola ustelkeria eta iruzurra.

- Bat-bateko hiru erantzunak kontuan hartuta, euskal biztanleen %12,4k aipatu du immigrazioa arazotzat; langabezia, aldiz, %85,5ek; bestelako arazo ekonomikoak, %26k, eta ustelkeria eta iruzurra, %13,8k.

*Txartel honetan aurkeztutako arazoen artean, zure ustez zein dira Euskadiko hiru nagusiak?**



- Arazoa iradokitzean, immigrazioa arazotzat hautematen dutenen ehunekoak gora egiten du, %14,2ra.
- Biztanleen %4k aipatu du immigrazioa EAEko lehen arazo gisa; hau da, bat-bateko erantzunetan aipatu dutenen halako bik.
- Alabaina, beste behin, gizartearen gehiengoarentzat batez ere arazo sozioekonomikoak dira kezka nagusia: langabezia (%78,7), bizitzaren kostua (%31,8) eta aberats eta pobreen arteko desorekak (%26,3).

**2010. urtetik aurrera emandako gaien zerrenda desberdina da aurreko urteetan erabilitakoarekin alderatuta, Europako datuekin (EUROSTAT) konparaketak egin ahal izateko.*

Gaiez aldatuz, zein dira zuri pertsonalki gehien eragiten dizuten hiru arazoak?



- Immigrazioa arazo pertsonal nagusitzat %1,5ek baino ez du aipatu. Aipamen guztiak kontuan hartuta, immigrazioa euskal biztanleen %,8,5entzat da arazo pertsonala. Ehunekoak gora egin du zertxobait 2015eko datuekin alderatuta, %7,3 izatetik %8,5 izatera.
- Gehien aipatutako arazo pertsonalak hauek dira: langabezia (%59,9), ekonomiari loturiko arazoak (%33,5) eta ustelkeria eta iruzurra (%14,1).

2. Etorkin-kopuruaren pertzepzioa



- Bertako biztanleek uste dute biztanleriaren %16,8 atzerritarra dela jatorriz. Alabaina, pertzepzioaren eta errealitatearen artean zer alde dagoen erakusten du 2016ko urtarrilaren 1eko erroldaren datuak; izan ere, horren arabera, biztanleen %8,6 da atzerritar jatorrikoa.
- Beraz, bertako biztanleen pertzepzioaren arabera, etorkinen kopurua benetan dena baino ia bi aldiz handiagoa da.

Euskadin bizi diren 100 biztanletik zenbat uste duzu jaio direla atzerrian?



- 2007. urteaz geroztik, pertzepzio horren batez besteko zifra %15 eta 18 artekoa izan da. Aitzitik, erroldatutako biztanle atzerritarren ehunekoa handitu egin zen 2007tik 2012ra, gorabehera txiki batzuekin mantendu zen 2015era arte eta handitu egin da berriro 2016an. Horrenbestez, datuek berresten dute pertzepzioa eta errealitatea ez doazela parekatuta; izan ere, pertzepzioa ez da askorik aldatzen urteen joanean, eta Euskadin bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoaren gorakadak ez du eraginik pertzepzio horretan.

3. Bizikidetza

Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, hiru leku hauetatik zein aukeratuko zenuke?



- Euskal gizartearen gehiengoak nahiago du euskal biztanleen gehiengoaren aldean beste arraza edo talde etniko bateko pertsona batzuk bizi diren auzo batean bizi. 2015ean baino pertsona gehiagok adierazi du nahi hori 2016an: duela bi urte %67,4k agertu zuen iritzi hori, eta 2016an, %72k.
- Bertako bost pertsonetatik batek nahiago du gehiengoaren aldean beste arraza edo talde etniko bateko pertsonarik ez dagoen leku batean bizi. Iritzi hori agertu duten pertsonen ehunekoa gutxitzen joan da 2012tik gaur egunera arte.
- Azkenik, %5,8k baino ez du bizi nahi gehiengoaren aldean beste arraza edo talde etniko bateko pertsona asko bizi diren leku batean.

Zure ustez, euskal herritarren eta atzerritarren arteko harremanak hobera egin du azken urtebetean, okerrera egin du, edo lehengo berean dirau?



- Oro har, euskal biztanleen gehiengoaren iritziz (%69,5) azken urtebetean ez da aldaketarik izan atzerritarrekiko erlazioan; aldaketak izan direla uste dutenen artean, berriz, aurten muturretara joan dira bi jarrerak, okerrera egin duela usten dutenak (%14,5) eta hobera egin duela adierazi dutenak (%12,5).
- Aurtengo iritziak eta jarrerak krisi ekonomikoaren aurretik (zehazki, 2008. urtearen aurretik) adierazitakoen oso antzekoak izan dira.

4. Begikotasun-maila eta integrazioa

Esan, mesedez, 0tik 10erako eskalan, zer begikotasun/integrazio duzun munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonekiko, kontuan hartuta 0k ez dituzula batere begiko / ez daudela integratuta adierazten duela, eta 10ek, oso begiko dituzula / oso integratuta daudela.



- Beste behin, kulturaren, politikaren edo gizartearen ikuspegitik gertukoagoak diren taldeei begikotasun handiagoa zaie eta alderantziz. Hala, EAEko biztanleek Magrebeko eta Errumania eta Ekialdeko EBko taldeekiko agertu dute begikotasun gutxien, 4,3 eta 4,6, hurrenez hurren. Talde horiek dira kulturaren edo gizartearen ikuspegitik urrunekoenak eta/edo horiekiko dago aurreiritzi gehien gure gizartean.

- Era berean, Mendebaldeko EBko eta Argentinako pertsonek dituzte begikotasun eta integrazio maila altuenak.

5. Aniztasunaren trataera

Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo baieztapenetan esandakoarekin:



Berez, euskal gizarteak jarrera positiboa du kultura-aniztasunarekiko:

- Beste talde etniko batzuk izatea kulturalki aberatsa dela uste du gehiengoak eta horren alde egiten du: hain zuzen, %56,7k adierazi du uste hori eta %24,1ek kontrakoa (2015ean, %57,5ek adierazi zuen iritzi hori eta %22,6k kontrakoa).

- %62,7k uste du etorkinen erlijio-jardunak ez duela arriskuan jartzen beren bizi-estiloa, eta, aldiz, %22,5ek baietz uste du. 2015ean %51,1ek agertu zuen iritzi hori, eta, aldiz, %31,7k, kontrakoa.

- 2015eko datuekin alderatuta, zenbait gorabehera antzematen dira kultura-aniztasunarekiko iritzietan: immigrazioak "Euskadiko bizitza kulturala aberastu" egiten duela uste dutenen ehunekoa apaldu egin da zertxobait (-0,8), baina, era berean, "atzerritarren erlijio-jardunak gure bizi-estiloa arriskuan" jartzen duela uste dutenen portzentajea nabarmenago jaitsi da (-8,2 puntu).

EAEko biztanleen ustez, hobe da guztiek, etorkinek zein bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (*)



- Bertako biztanleen gehiengo zabalak (%76,5) uste du euskal gizartearentzat hobea dela den-denek, etorkinek nahiz bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea, eta, aldiz, %10ek ez du horrela uste.

- Iritzi horretakoa da euskal gizartea 2012. urteaz geroztik, eta datuei erreparatuz, 2004an ere oso antzekoa zen euskal herritarren jarrera.

(*) 2004, 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011ko barometroetan, honela egiten zen galdera: "Euskal gizartearentzat hobea da den-denek, etorkinek nahiz bertakoek, hizkuntza komuna hitz egitea"

Euskal gizartearentzat, hobe da den-denek ohitura eta tradizio berak partekatzea

- Bertako biztanleen erdiak (%50,9) uste du euskal gizartearentzat hobea dela gizartea osatzen dugun kide guztiok ohitura eta tradizio berak partekatzea.

- 2016an eta 2015ean ez da asko aldatu baieztapen horrekin bat zetozen herritarren ehunekoa; aldiz, bat ez zetozenena handitu egin da (+4,6).

- 2004tik gaurdaino seriean izan den bilakaerari erreparatuz gero, bi fase nabarmen bereizten dira: lehen fase batean (2004tik 2011ra), gizarteak, oro har, iritzi polarizatuak adierazten zituen, eta bigarren fase batean, 2012ko barometrotik aurrera, gizartea osatzen dugun pertsona guztiok ohitura eta tradizio berak partekatzearen alde egiten du gehiengoak. Bilakaera horrek adieraziko luke atzeraldi ekonomikoaren garaian areagotu eta sendotu egin direla etorkinen integrazioarekiko ikuspegi asimilazionistak.



Euskadin bizikidetza ona izateko, esan zer neurritan zauden ados kultura-aniztasunari buruzko honako baieztapen hauekin:



- Euskal biztanleen %72,8k uste du bi aldeek egin behar dutela ahalegina, bai etorkinek eta bai bertako biztanleek.

- Alabaina, %70,7k dio pertsona etorkinek, erabat onartuak izateko, alde batera utzi beharko lituzketela beren erlijioen zenbait alderdi; hain zuzen, gure legediarekin talka egiten duten alderdiak.

- Aldiz, %21,7k soilik uste du bertako pertsonek ahalegina egin beharko luketela etorkinen ohitura eta tradizioen berri jakiteko eta horietara egokitzeko.

- Beraz, ondoriozta dezakegu areagotzen doazela etorkinekiko eta haiek euskal gizartean integratzeko ereduarekiko jarrera asimilazionistak.

Ondo ala gaizki iruditzen zaizu atzerritarrek…?



- Euskal biztanleen gehiengoari ondo iruditzen zaio atzerritarrek sukaldaritza exotikoko edo atzerriko sukaldaritzako jatetxeak zabaltzea (%63,8), beren saltokiak zabaltzea (%61,2) edo beren janari-dendak izatea (%56,8) edo beren hizkuntzan hitz egitea (%52,3).

- Alabaina, sakontzen dugunean, eta gai ez hain *exotikoetan* barneratzen garen heinean eta zenbait kultura-jokabideren muinera gerturatzen garen neurrian, ikuspegi asimilazionista azaleratzen da. Beraz, *azaleko kultura-aniztasuna* nagusitzen dela berretsi dezakegu. Izan ere, bertako jende gutxiagok ikusten ditu begi onez kultura-jarraibide zehatz batzuk, hala nola, plazak edo eremu publikoak hartzea (%43,8), beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea (%39,7), beren jatorrizko herrialdeko jantziekin ibiltzea (%32,2), edo beren irakaskuntza-zentroak izatea (%27,5).

- Oro har, datu horiek 2015eko barometrokoekin alderatuta, zertxobait behera egin du beren irakaskuntza-zentroak izatea (-7,4), plazak edo eremu publikoak hartzea (-6,5) edo beren saltokiak irekitzea (-3-5) begi onez ikusten dutenen ehunekoak. Beste kultura-jarraibide batzuei dagokienez, aldiz, elkarren artean beren hizkuntzan hitz egitea edo beren janari-dendak izatea begi onez ikusten dutenen ehunekoak lehengo berean dirau, eta beren jatorrizko herrialdeko jantziekin ibiltzea (0,3) edo janari exotikoko jatetxeak zabaltzea (3,5) begi onez ikusten dutenenak, berriz, hobera egin du.

6. Euskal nortasunean eta euskaran dituen eraginak

Atzerriko immigrazioaren eragina euskal gizartean:



- Euskal gizartearen gehiengoak ez du uste etorkinen etorrerak euskal nazionalismoaren helburuak geldiaraziko dituenik (%73,2) edo euskal identitatearen galera ekarriko duenik (%80,4).

- Euskarari eta haren erabilerari dagokionez, gehiengoak (%76,7) ez du uste immigrazioaren fenomenoak erabilera murriztuko duenik Euskadiko hainbat eremutan, ez eta euskararen hedapena geldiaraziko duenik ere (%78,2).

- Garrantzitsua da gai hau azpimarratzea; izan ere, barometroko datuek behin eta berriro azpimarratzen dute euskal gizarteak ez duela etorkinen etorrera mehatxutzat hartzen euskarari eta euskal identitateari edo identitateei eusteko eta horiek garatzeko.

7. Eragina ekonomian

Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo baieztapenen edukiarekin:

- Bertako biztanleek modu anbibalentean eta alde bateko edo besteko iritzi argirik gabe hautematen dute immigrazioak ekonomian duen eragina.
- Euskal gizartearen erdiak baino gehiagok (%55,0) ez du uste soldatak jaitsi egiten direnik hona bizitzera eta lanera datozenengatik. Galdekatutako pertsonen ia erdiak (%48) uste du immigrazioak areagotu egiten duela langabezia.
- Euskal gizartearen %44,7k uste du etorkinak behar ditugula gure ekonomiako zenbait sektoretan lan egiteko, eta %48,3ren iritziz ekonomiak hobeto funtzionatzen du bertako langileek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako etorkinek.



2015eko barometroarekin alderatuta, aurtengo datuek berretsi egiten dute aldaketa; hau da, krisi-aurreko garaian ohikoa zen immigrazioarekiko ikuspegi funtzional eta utilitarista indarra hartzen ari dela berriro. Izan ere, gora egin du gure ekonomiako zenbait sektoretan lan egiteko etorkinak behar ditugula uste duten pertsonen ehunekoak, baita etorkinek bertako langileek nahi ez dituzten lanpostuak betetzearen ondorioz ekonomiak hobeto funtzionatzen duela uste dutenenak ere.

Azken batean, berriro ere azaleratzen ari da lan-immigrazioarekiko onarpen handiagoa adierazten duen jarrera, hori bai EAEko lan merkatuarentzat funtzionala den heinean.

8. Eragin sozialak

Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo baieztapenen edukiarekin:

- Euskal gizartearen %56,5ek uste du immigranteek onura handiegia jasotzen dutela gizarte-babeseko sistematik. Ehuneko hori 2015ekoaren oso antzekoa da (2,3 egin du gora portzentajeak).
- Era berean, %41,8k uste du gero jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen dituztela; aldiz, %21,8k kontrakoa pentsatzen du.
- Euskal gizartearen %34,9k uste du atzerritarrek segurtasun falta eta delinkuentzia sortzen dutela (6,5 puntu jaitsi da ehuneko hori 2015etik) eta, aldiz, %39,8k ez du horrela uste. Lehen aldiz barometroaren azterketa egiten denetik, gehiago dira etorkinen etorrerak segurtasunean eta delinkuentzian eragin kaltegarririk ez duela uste dutenak baietz uste dutenak baino.
- Gehiengo zabalak (%62,7) ez du uste etorkinen erlijio-jardunak arriskuan jartzen duenik euskal gizartearen bizi-estiloa.



- 2015eko barometroarekin alderatuta, gehiago dira immigrazioak segurtasun faltarik eta delinkuentziarik ez duela sortzen uste duten euskal herritarrak. Orobat, gora egin du immigrazioak gizartearen zahartzearen arazoa konpontzen lagun dezakeela uste dutenen ehunekoak.

Kezkatuta al zaude atzerriko pertsona gehiago iristeak eragin negatiboa izan dezakeelako zuregan edo zure familiarengan honako alderdi hauetan:...?



- Immigrazioak norberaren familian izan ditzakeen eragin zuzenak direla eta, bertako biztanleek batez ere bi kezka nagusi agertu dituzte: gizarte-laguntzak eskuratzeko aukera gutxiago izango ote duten eta ospitaleetan itxaronaldi luzeagoak egin beharko ote dituzten. Aitzitik, ez dute horrenbesteko kezkarik agertu, besteak beste, lana aurkitzeko, etxebizitza bilatzeko edo hezkuntza-kalitate okerragoa jasotzeko. Kasu horietan, ez dute uste immigrazioak hainbesteko eraginik duenik.

- 2015eko barometroa aintzat hartuta, euskal biztanleen iritzia nahiko antzekoa da aztertutako gai gehienetan, ospitaleetako itxaronaldiei dagokienean izan ezik. Arlo horretan, areagotu egin da euskal gizartearen kezka: duela bi urte biztanleen %35,6 kezkatzen zuen gai horrek, eta 2016an, %43,5.

9. Eskubideak eta zerbitzuak eskuratzea

Zure iritziz, Euskadin bizi diren etorkinek eta bertakoek aukera bera izan beharko lukete honako eskubide hauek eskuratzeko?



- Euskal gizartearen gehiengoaren iritziz hezkuntza eta osasun-arreta eskubide unibertsalak dira.

- Aitzitik, beste eskubide batzuei buruz galdetuta (laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, etxebizitza babestua eskuratzeko eskubidea, familia berriro elkartzeko eskubidea, botoa ematekoa), jarrera uzkurragoa agertzen dute bertako biztanleek. Eskubide horiek erregularizatuta dauden atzerriko biztanleei mugaturik egon beharko lukete, gizartearen gehiengoaren arabera.

- Nolanahi dela ere, 2016an, oro har, gora egin du pertsona guztiek eskubide eta zerbitzu guztiak izan beharko lituzkeela uste dutenen ehunekoak. Gizarte-laguntzak eskuratzeko aukerei eta babes ofizialeko etxebizitzari dagokienean, ordea, -1,1 apaldu da iritzi hori dutenen portzentajea.

Zure iritziz, Euskadin bizi diren etorkinek doan eskuratu beharko lituzkete zerbitzu hauek:



- Euskara eta gaztelania ikasteko eta lanbide heziketa jasotzeko eskolei dagokienean, gehiago dira eskubide hori atzerritar guztiei (edozein izanik ere haien lege-egoera) zabaltzearen aldekoak, mugatzearen aldekoak baino.

- Ama hizkuntza ikasteko eskolei buruz, iritziak askotarikoak dira: %35,5ek uste du inork ez lukeela eskola horiek jasotzeko aukerarik izan behar; %32,5ek uste du guztiek izan beharko luketela, eta, neurri txikiagoan, %26,8k uste du erregularizatuta daudenek soilik izan beharko luketela eskubide hori.

- 2016an gora egin du eskubide horiek unibertsalak izan beharko luketela usten dutenen ehunekoak. Gorakada hori nabarmenagoa izan da gaztelania (+13,7 puntu) eta euskara (+12,4 puntu) ikasteko eskolak jasotzeko aukera izan beharko luketela uste dutenen artean.

Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete erakundeek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez?



- Euskal biztanleen %48,5ek uste du pertsona guztiek, bertakoek nahiz etorkinek, aukera izan beharko luketela DBE eskuratzeko aukera, baldin eta horren beharra badute, Euskadin erroldatuta zenbat denbora daramaten kontuan hartu gabe.

- Aitzitik, euskal biztanleen %27k uste du etorkin guztiek izan beharko luketela aukera DBE jasotzeko, baina horren beharra duten bertako guztiek jaso ondoren.

- Eta %18,5ek uste du administrazio-egoera erregularizatuan dauden pertsonek soilik izan beharko lukete DBE eskuratzeko aukera.

- Azken bi urteetan nabarmen egin du gora DBEren beharra duten pertsona guztiek prestazio hori jasotzeko eskubidea dutela uste dutenen ehunekoak.

10. Immigrazio-politika

Sarbide-politika	Kanporatze-politika	Pertsona "irregularren" politika	Asilo politikoa eta babes-eskatzaileak
Lan-kontratua **%45,3**	Delituren bat egiten badu **%50,9**	Lanean daudenak erregularizatu **%43,3**	Mugarik gabe hartu: **%29,8** Baldintzapean hartu: – ihesi dabiltzala egiaztatzen bada **%41,0** – urtean kopuru jakin bat baino ez **%15,8**

Zure ustez, zer politika litzateke egokiena langile etorkinentzako?



- Bertako biztanleen %19,2 etorkinak sartzeko legezko oztoporik ez jartzearen alde dago. Aldiz, % 4,3 etorkinak sartzea nolanahi galaraztearen alde dago.

- Gutxi gorabehera bertako hamar herritarretatik zazpiren iritziz, etorkinei etortzeko aukera eman beharko litzaieke legezko betebehar batzuk betez gero: zehazki, %45,3ren ustez, soilik lan-kontratua dutenei utzi beharko litzaieke sartzen; eta, % 23,8ren iritziz, legezko beste baldintza batzuk betetzen dituztenei ere eman beharko litzaieke sartzeko aukera; hala nola, familia berriz elkartzeko helburua dutenei, ikasleei, errefuxiatuei eta abarri. Azken batean, beste inkesta eta azterlan asko eta askotan ikusi denez, lan-kontratua berme nahiko dela jotzen dute biztanle gehienek oraindik ere, ziurtasuna sortzen duelako eta susmo txarrak uxatzen dituelako.

- Bilakaera aztertuta, ikusi dugu herritarrek eutsi egin diotela etorkinei sartzen uzteko iritziari, beti ere baldintzak betetzen badituzte. Nolanahi ere, gehiago dira inolako lege-oztoporik gabe sartzen utzi beharko litzaiekeela uste dutenak.

Esan zenbateraino zauden ados ala ez ondorengo esaldietan esaten denarekin:



- Euskal gizartearen iritziz, lanik gabe geratzea ez da arrazoi nahikoa atzerriko langileak kanporatzeko; % 66,6 ados dago horrekin.
- EAEko herritarrak zorrotzagoak dira indarrean dagoen legedia betetzeari dagokionez: %50,9 ageri da edozein delitu egiten duten atzerritarrak kanporatzearen alde.

Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak egoera "irregularrean" dauden etorkinekin?



- Oro har, EAEko gizarteak lana eta langile atzerritarrak onartzea lotzen jarraitzen du; hori horrela izanik, lana duten atzerritarren egoera erregularizatzearen (bizilekubaimena ematearen) aldeko da. Lotura hori aldatzen joan da urteotan guztiotan.
- Gutxiengo batek baino ez ditu adierazi jarrera uzkur eta itxiak: zehazki, %7,2 administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar guztiak kanporatzearen aldekoa da.

Zure ustez, zer jarrera du euskal gizarteak pertsona errefuxiatuekiko?



- Bertako biztanleen %44,8ren iritziz euskal gizarteak bereizten ditu pertsona errefuxiatuak eta etorkin ekonomikoak.
- Aldiz, %35ren ustea da pertsona errefuxiatuak hobeto ikusita daudela.

Eta zure ustez zer egin beharko litzateke babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin?



- Babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonak inolako murrizketarik eta mugarik gabe hartu beharko liratekeela uste du hirutik batek. Eta %56,8k adierazi du zenbait baldintzarekin hartu beharko liratekeela -adibidez, benetan jazarpena jasaten ari badira (%41) –, edo kopuru mugatu bat hartu beharko litzatekeela (%15,8). Horrenbestez, galdekatutako hamar pertsonatatik zazpik uste dute babesa eman behar zaiela errefuxiatuei, inolako murrizketarik gabe edo beren jatorrizko herrialdean edo lekuan jazarriak direla egiaztatu ondoren.
- Bilakaerari erreparatuta, babesa edo asilo politikoa eskatzen duten pertsonekiko jarrera hobetu egin da 2015eko barometroarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da, batez ere, inolako murrizketarik gabe hartu beharko liratekeela usten dutenen gorakada (+7,7 puntu igo da portzentajea).

11. Tolerantzia-indizea

Tolerantzia-indizearen bilakaera

Atzerritik etorritako etorkinekiko tolerantzia-indizearen bitartez EAEko bertako herritarrek atzerriko etorkinen aurrean dituzten jarrera eta jokabideak neurtzen dira. Tolerantzia-indizean laburbiltzen dira EAEko herritarrek etorkinekiko dituzten iritziak, jokabideak, balioak, sinesmenak, estereotipoak eta abar. Indizea 0tik 100era bitarteko zifra bakarrean adierazten da, "ikasketetako nota" bailitzan, tarte horretan kokatze aldera; hala, adierazle horren xedea da fenomeno horren aurrean zer nolako jarrera dugun jakitea eta datozen urteetan izango dugun bilakaera ikustea.

2016an, bertako herritarrek 59,04 puntu lortu dituzte tolerantzia-indizean. Hala, datu horrek 2013an abiatutako hoberanzko joera berresten du.

Azterketa horrek aukera eman du tolerantzia-indizeari loturiko zenbait aldagai soziodemografiko identifikatzeko. Aldagai horien bitartez, atzerritarrekiko tolerantzia-maila handia edo txikia duten pertsonen profila jakin dezakegu.

Beheko irudian ikus daitekeenez, tolerantzia-maila zenbait aldagairi lotuta dago; hala nola: adina, ikasketak, bizilekua, erlijioa, hizkuntza, nazionalismoa, identitate-sentimendua, ideologia; diru-sarrerak, ekonomia-egoerarekiko norberaren



iritzia, lanbide mota, krisiaren eragina, baikortasun-maila, etorkizunera begirako aurreikuspenak, interakzio pribatua, interakzio publikoa eta aisialdiko interakzioa. Horrenbestez, beste aldagai batzuen artean, adin gehiagoko pertsonek, ikasketa-maila apalena dutenek, eskuinekoek, nazionalista espainiarrek eta egoera ekonomiko prekarioa dutenek jarrera uzkurragoa dute immigrazioarekiko. Aitzitik, beste aldean, gazteek, unibertsitate-ikasketak dituztenek, ateoek, ezkerrekoek, euskal nazionalistek eta ekonomia-egoera egonkorragoa eta hobea duten pertsonek jarrera irekiagoa dute.

Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

TOLERANTZIA-ATALASE TXIKIENA DUTEN PERTSONEN PROFILA	Aldagaia	Esangura	TOLERANTZIA-ATALASE HANDIENA DUTEN PERTSONEN PROFILA
45 urtekoak eta hortik gorakoak	Adina	.000	18 eta 44 urte bitartekoak
Lehen mailakoak, ikasketarik gabe	Ikasketak	.000	Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikask.
5.001 eta 20.000 biztanle artean	Habitata	.000	20.000 biztanle baino gehiago
Katoliko praktikanteak	Erlijioa	.000	Agnostikoak, ateoak...
Erdaldunak	Hizkuntza	.000	Euskaldunak
Espainiarra	Abertzaletasuna	.010	Euskalduna, euskaldun moderatua
Espainiarra nagusi	Identitate-sentimendua	.004	Euskalduna nagusi
Eskuina eta zentroa	Ideologia	.001	Ezkerra
Hilean 1.000 €, gehienez	Diru-sarrerak	.000	Hilean 1.800 € eta gehiago
Gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	.000	Gustura daudenak eta ezaxolak
Etxeko lanetan arituak, erretiratuak, langabeak	Lanbidea	.000	Ikasleak
Krisiaren eragin handia	Krisiaren eragina	.003	Krisiaren eragin ertain eta txikia
Ezkorrak	Baikortasuna	.010	Baikorrak
Etorkizun txarra	Etorkizuna	.000	Etorkizun normala eta ona
Etorkinekin nahasketa	Auzoa	.005	Bertakoak
Inolako harremanik ez	Interakzio pribatua	.006	Interakzio handia edo zerbait
Inolako interakziorik ez	Interakzio publikoa	.006	Interakzio handia edo zerbait
Interakziorik ez edo zerbait	Aisialdeko interakzioa	.000	Intentsitate handikoa

ONDORIOAK

1. EAEko herritar gehienen ustez immigrazioa ez da arazo garrantzitsua. Bertako biztanleen %2k soilik uste du fenomeno hori Euskadiko arazo garrantzitsuenetako bat dela.

2. Aurreko urteetan bezala, Barometroaren datuek berresten dute euskal gizarteak jarrera anbibalentea duela atzerriko immigrazioarekiko.

3. Integrazio-ereduan eta beste zenbait alderditan azaleratzen da immigrazioarekiko jarrera anbibalente hori. Kultura-aniztasunaren aberastasun soziala azpimarratzen dute batzuek, baina aitzitik, badira jarrera asimilazionistak ere; gainera, jarrera horiek areagotu egin dira azken urtebetean eta finkatzen ari dira azken urteotan.

4. Etorkinen etorrera dela-eta, zalantza eta errezelo gehien sortzen duten alderdien artean bi hauek daude: euskal gizarteak ongizateari eutsiko ote dion eta zenbait eskubide eta gizarte-prestazio eskuratzeko aukera izango ote duen. Krisiarekin pertzepzio horiek indartu egin baziren ere, azken urteotan (2014tik aurrera) apaltzen joan dira, nahiz eta oraindik ere gehiengoa iritzi horretakoa den.

5. Errefuxiatuen gaia puri-purian da azken aldian gizartean eta komunikabideetan, eta horri dagokionez, EAEko herritarrek jarrera irekia adierazi dute azken barometroan, 2015ean baino hobea.

6. Ondorio gisa, 2016ko barometroko datuak hobeak izan dira, oro har, 2015ekoak baino, eta krisi ondoko egoera sendotzen ari denaren adierazle dira.

7. 2016an, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea 100etik 59,04 puntukoa izan da; hala, 2013an abiatutako hoberanzko joera berresten du zifra horrek.

8. Laburbilduz, atzerriko immigrazioarekiko iritzi hobea eta baikorragoa finkatzen ari dela erakusten dute 2016ko barometroko datuek.

asteroko berri-sorta newsletter semanal

ikusberri

Immigrazioa hedabideetan
La inmigración en los medios

Harpidetu! ¡Suscríbete!

Immigrazioa, errefuxiatuak, aniztasuna, etab. interesatzen zaizkizu?

Honi buruzko berri garrantzitsuenak biltzen dituen astekaria prestatzen dugu Ikuspegin.

Ostiralero gure berri-sorta jasoko duzu zure emailean zuzen-zuzenean. Harpidetu zaitez!

Berriak egunero kontsultatzeko:
ikusberri.ikuspegi.eus

ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta ezazu gure web orria:
www.ikuspegi.eus

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk:
– **Dokumentazio zentrua**: kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
– **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:
Tlf.: 94 601 82 75
Fax: 94 601 82 78
e-mail: info@ikuspegi.eus

Pertsonalki helbide honetan aurki gaitzakezu:
Liburutegi Zentraleko Eraikina, 6. pisua, UPV/EHU
Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa (Bizkaia)

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO